



Lau zutabetan banatuta, preso eta iheslarien aldeko kalejirak egin ziren atzo, herrian barrena. Elkartu ostean, antzerkia egin zuten Plazan.

## EGIN DEZAGUN BIDEA

# Kartzelak hautsi eta presoak etxeratu zituzten atzo

Martuteneko espetxera martxa izango da gaur. Hernanitik 10:30etan abiatuko dira. Zinkoenean da hitzordua, eta Astigarragatik 11:00etan aterako dira.

URTEKO azken ostirala izan zen atzo eta euskal preso politikoaren eta iheslarien eskubideen alde, kalera atera zen herritar mordoa, *Egin Dezagun Bidea* Bilgunearen deialdiari erantzunez. Zikuñaga, Portu, Antziola eta Etxeberri auzoetatik abiatu

ziren, kalejiran, eta lau zutabeak Plaza Berrin elkartu ostean, ekitaldi berezia egin zuten Gudarien plazan. Antzerkia egin zuten. Guztien artean, kartzelak puskatu eta Hernaniko presoak etxeratu zituzten. Bestalde, gaur, Martutene-

ko espetxera martxa izango da. Hernanitik (Zinkoenea) 10:30etan abiatuko dira eta Astigarragatik, 11:00etan.

**Bilbora joateko deia**  
Urtarrilaren 7an, manifestazio nazionala izango da Bilbon,

presoen eskubideen alde, eta bertara joateko dei egin zuten atzo. Hernanitik autobusak jarriko dituzte, eta izena emateko zerrendak daude Txilin, Oindin eta Garinen. Martindegitik ere aterako da autobusa; apuntatzeko: 666 903 624. ||

### ❖ EGUBERRITAKO EKITALDIAK

#### Erronda, Molotoff irratia eta Incansables txaranga, gaur

Ohitura Zaharrak abesbatzak bertsoz agurtuko du urtea gaur, Urte Zaharreko errondarekin. Gudarien plazatik abiatuko dira 17:15etan. Molotoff irratia ere festa du gaur eta Incansables txaranga, 01:30etan abiatuko da. /3

### ◆ ERREMONTEA

Buruz Buruko Masterra

#### Urrutia I eta Urriza gaur, finalerako pasearen bila

Urrutia I eta Urrizak Buruz Buruko Orona Masterreko finalerdia jokatu dute gaur, 17:00etatik aurrera, Galarretan. /7

### ❖ URTARRILEKO AGENDA

#### Bertsotan hasi eta txotxean bukatuko dugu urtarrila

Besteak beste, Bertsolako jaialdi nagusia izango da urtarrilaren 7an eta txotx irekiera eguna, urtarrilaren 22an. /6

### GAUR KRONIKAN

**Fotonotiziak:** Karabelgo tute eta mus txapelketak, JUMA jiu-jitsu eskola, Kontxapuzoia eta Dorronsoro okindegiko saria /2

**Laburrak:** Ereñotzu, farmaziak, termalismoak... /2

**PSE-EE** prentsa oharra /3

**KIROLAK:** pelota, ehiza... /7

**Eskelak** /7

**Argazkilaritza:** N. Legarretaren 'Edipotoa' liburua salgai /8

<b>SPA Bi pertsonentzat</b> Zirkuito termala	<b>KOFRE VIP OPARITZEKO</b>	49'90€
<b>NEKAZAL GIROKO EGONALDIA Bi pertsonentzat</b> Gau bat gosaria barne		69'90€
<b>FAMILI GIROKO EGONALDIA Bi heldu eta bi umeentzat</b> Gau bateko egonaldia, gosaria barne		99'90€
<b>NEKAZAL GIROKO ASTEBURUA Bi pertsonentzat</b> 2 gaueko egonaldia gosaria barne		134'90€
<b>ZEN EGONALDIA Bi pertsonentzat</b> Gau bateko egonaldia gosaria barne + zirkuito termal bat		392'00€
<b>NEKAZAL &amp; GOURMET ASTEBURUA Bi pertsonentzat</b> Bi gaueko egonaldia pentsio erdian		194'90€

### GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan. **ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 4A GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.**

**BALDINTZAK:**  
Gaia: "BIDAIAK"  
Adina: 4-11 URTE  
EPEA:  
Urtarrilaren 4a:

**SARIA:** Apirilaren 9tik 15era  
PORT-AVENTURAN 6 eguneko egonaldia, pentsio osoan 2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak (edo baliokidea)..

**AUKERA GEHIAGO ERE:** [www.bidaibila.com](http://www.bidaibila.com)



20 urte  
bidaiez bidai,  
hernaniarren  
ametsak  
betetzen!

**HERNANI  
BIDAIAK**

Urbietan, 6  
943 33 00 49  
hernanib@teletel.es  
[www.hernanibidaiak.com](http://www.hernanibidaiak.com)



**Karabelgo txapelkunak, musean Miranda eta Sardon; tutean, Cano eta Tobar.**

Karabelgo Belkara auzo elkarteak mus eta tute txapelketak antolatu ditu Gabonetan, eta saski bat ere zozketatu du. Giro ederrean jokatu dira partidak, eta irabazleak honakoak dira: musean, Benjamin Miranda eta Jaime Sardon; tutean, Antonio Cano eta Isidro Tobar. Horrez gain, saskia ere zozketatu dute, eta irabazleak hiru: Alberto Gaspar, Elias Martin eta Miguel Ijurko. ||

**Arrakasta, JUMA Jiu-jitsu eskolak.**

Hernaniko JUMA Jiu-jitsu eskolako sei kidek maila haundiagoko gerrikoa lortu zuten Logroñon, azterketak gaindituta. 3garren Dan: Alberto Garciak, Agustin Pintadok eta Javier Verdugok. 2garren Dan: Marcial Labayenek. 1go Dan: Eneko Urrestarazuk eta Aitor Usaolak. ||



**Hernaniarrak igeri, Kontxako ur hotzetan.**

Donostiako Kontxapuzoian izan ziren Hernaniko igeriketa elkarteko 4 kide, joan den astean. Fortunak antolatu zuen martxa, esklerosi multiplearen ADEMGi elkartearen alde. 200 metro egin zituzten, itsasoko ur hotzetan: Aitor Huizi, Alain Gartzia, Txomin Mujika eta Jon Ander Izuzkizak. ||

**Francisco Murianarentzat, Dorronsoroko 500 euroak.**

Dorronsoroko okindegiak urtero ematen ditu 500 euro gabonetan, eta aurten saria egokitu zaiona da: Francisco Muriana Cruz. Errifa zenbakia 446 izan zen. Dorronsorok eskerrak eman nahi dizkie bere bezero guztiei. ||



❖ EREÑOTZU

**Deialdi publikoa, Ereñotzuko taberna hartzeko**

Ereñotzuko Auzo Udalak deialdi publikoa deitu du, Ereñotzuko taberna hartzeko. Lehen Irrintzi taberna izandakoa berritzen ari dira, eta laster izango da martxan jartzeko moduan. Orain, jendea behar dute tabernako marxa eramateko, eta deialdi publikoa egin dute. Izena emateko aukera dago urtarrilaren 15 inguru arte, eta lehenbailehen mugitzeko gomendatu dute. Informazio gehiago, auzo elkartearen, telefonoz: 943 551 000, edo [www.hernani.net](http://www.hernani.net). ||

❖ FARMAZIAK

**Etxebestek hartuko dio erreleboa Aizpuru farmaziari**

Etxebeste farmaziak egingo ditu gaueko guardiak, 2012an. Aizpuru farmaziak gaur azkeneko turnoa egingo du gauez, eta bihartik aurrera izango da Etxebesteren txanda (Elkano, 9). Egunezko turnoak, asteburu honetan, Bulnesi tokatu zaizkio (Etxeberri, 1). ||

❖ TERMALISMO SOZIALAK

**Otsailetik abuztura termatara joan nahi duenak, orain eman behar du izena**

Imsersoak urtero jartzen du aukera jubilatuentzat, termatara joateko. Otsailetik abuztura termatara joateko, orain apuntatu behar da Goiz Eguzki jubilatutako etxean, edo Ongintza Patronatuan. Urtarrilaren 16 arte dago epea apuntatzeko. Irailetik abendura joan nahi duenak berriz, maiatzaren 16ra arte dauka epea apuntatzeko. Informazio gehiago, Ongintza Patronatuko bulegoetan. ||

❖ KIROLDEGIA ITXITA

**Kiroldegia itxita, gaur eta bihar**

Urtezahar eta urteberri egunetan itxi egingo dute Hernaniko Kiroldegia. Astelehenean zabalik izango da. ||

❖ GAZTE ASANBLADA

**Mus txapelketa azkarra, gaur Gaztetxean**

Hernaniko Gazte Asanbladak antolatuta, mus txapelketa azkarra izango da gaur, Hernaniko Kontrakantxa gaztetxean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da txapelketa, eta izenematea bertan egin behar du parte hartu nahi duenak. ||

❖ ZUMITZA


**Festa gaur Zumitzan: 'Dj rockKaiet'**

Goizaldeko 01:00ean kontzertua izango da Zumitza tabernan. DJ rockKaiet ariko da musika jartzen, estilo hauetan: rockabilly, rock 'n' roll, rhythm 'n' blues, soul, 70's funk, deep funk, disko, boogaloo, grooves... ||

❖ HILDAKOAK

**Antonio Goikoetxea hil da**

Antonio Goikoetxea hil zen atzo, 94 urte zituela. Goikoetxeak zeri-kusi haundia izan du azken urteetan Comete Sarearen gainean egin diren ikerketa eta ospakizunetan. Florentino Goikoetxea, mugalari izandakoaren anaia zen Antonio. Besteak beste, *Azken Bidaia* dokumentalak biltzen ditu bere testigantzak eta Hernaniko Kronikan berari egindako elkarrizketa argitaratu zen, azaroaren 10ean. ||



Antonio Goikoetxea.

**EGUBERRI EKITALDIAK**

# Urteko azkena, erronda

Ohitura Zaharrak abesbatzak bertsoz agurtuko du urtea, gaur. Gudarien plazatik abiatuko dira 17:15etan. ● Molotoff irratiak ere festa du gaur. ● Incansables txaranga, 01:30etan.

URTEKO azken ekitaldiak izango dira gaur Hernanin. Urtezaharretako erronda, horietako bat. Besteak, Molotoff irratiaren mariskada, eta Incansables txarangaren erritmoa, ordu txikienetan.

**Erronda, zaharrari agur eta berriari ongiatorri**

Urtezaharretako erronda aterako da 17:15etan Gudarien plazatik eta kalez kale ibiliko dira bertsoan eta kantuan. Hernaniko Iraulio Panttalone Bertsoeskolako kideak lagun izango dituzte, eta tabernaz taberna eskea egingo dute, urte zaharra agurtuz, berriari ongiatorria eginez. Trikitixak alaituta, kalean barrena kantu, koplak eta bertsoak kantatu nahi dituzten guztiei dei egin die antolatzaileek «elkarrekin bat egingo dugulakoan, ondo izan eta urte berri on!».

**Mariskada zozketatuko du Molotoff irratiak, aurten ere** Molotoff irratiak kideak egun guztian egongo dira gaur Gudarien plazan. Giro ederra izango da bertan ere, egun guztian musika jarriko baitute. Horrez gain, mariskada zozketatuko du Molotoffek iluntzean. Errifak gaur erosi, eta saria gaur eraman; horixe egingo dute hernaniarrek, zorte pixka bat baldin badaukate behintzat.

Molotoff irratiak hasi ditu saio berriak, eta udara bitarte, musika saioak, irratsaioak, Info7ko albistegia, magazinak eta abar izango dira. Irratiak diru pixka bat ateratzeko egin ohi du urtero mariskada haundi hau, eta gaurko eguna aprobetxatuko dute, urtero dirua ematen duten irrati-zaleei eskerrak emateko ere.



Ohitura Zaharrak abesbatzako kideak geldialdi seinalatua izaten dute Irizar taberna aurrean.

Incansables txaranga jarriko du giroa goizaldean, kalean gora, kalean behera. Urtezaharra luzatu nahi dutenentzat aukera ederra.

**Incansables txaranga, urteroko gau txoriak**

Goizaldean etxera joateko gogorik ez dutenek, badute nola gozatu Hernaniko kaleetan. Incansables txaranga jarriko du giroa gaur kalean gora, kalean behera. Nekatzen ez den talde honek, urte zaharra luzatzen laguntzen die euren gisakoei: gau txoriei. Goizeko 01:30etan joko dituzte lehen-dabiziko notak; auskalo noiz, azkenekoak. ||

**Musika eskolako kideak, urteko azken kontzertuan.**

Hernaniko musika eskolako kideak abenduaren 28an egin zuten urteko azken kontzertua, Milagrosan. Eskolako abesbatzak, txistulariak, pianistak, biolinistak... erakustaldi ederra eman zuten, elkarrekin. ||

**PSE-EE**

«Bilduk zergatik ez du Hernani defendatzen, Diputazioaren aurrean?»

ASTEARTEKO Plenoan PSE-EEK aurkeztutako mozio bat ez zen onartu, Bilduko 9 zinegotziek kontra bozkatu zutelako. Horren aurrean, PSE-EEko kideak haserre agertu dira, Hernaniko Kronikara bidalitako prentsa oharrean.

Hernaniko Udalak diru bat bueltatu behar dio Diputazioari, hasiera batean espero baino diru gutxiago bildu delako zerga bidez (Gipuzkoako Udal asko daude egoera horretan). Guztira, 917.933 euro bueltatu behar ditu Hernanik, eta PSE-EEK eskatu zuten, ordainketa hori zatika egiteko; alegia, 2013an zati bat, 2014an beste bat, eta 2015ean azkena.

Hernaniko Gobernu Taldeak aurka bozkatu zuen astearteko Plenoan. PSE-EEK honako dio: «Udala ito egin nahi du Bilduk. Ez dugu izango bonbillak erosteko ere. Lehengo ere sistema hau erabili izan da ordainketak egiteko, 2009an adibidez. Zergatik ez orain?». Astearteko Plenoan Bilduko zinegotziek azaldu-tako jarrera ere salatu du PSE-EEK. «Asteartean, bazirudien Diputazioko kide bat ari zela hizketan, eta ez Hernaniko zinegotzi bat. Hernaniko Plenoak defendatu behar ditu Hernaniko diru-kontuak. Erabaki honekin, Hernaniko Udalak kolpe haundia hartuko du ekonomikoki. Diru hori ondo etorriko litzaioke Hernaniri urte hauetan funtzionatu ahal izateko. Orain, erabat itota geratu da, ezer egiteko». ||

ZATOK II

11korapilo

DISEINUTAN  
AUKERA  
ZABALA

**GHD PLANTXAK  
EROSTERAKOAN  
ORRAZKETA  
KURTSOA OPARI**

ghd  
ILEKO PLANTXAK

NAFAR KALEA, 16 TEL: 943 57 99 76.

**BigMat**  
Ariceta, s.a.

ALMAZEN MULTIESPEZIALISTAK

ERAIKUNTZA	KOMUNA ETA ITURRIAK
ITURGINTZA	MANPARAK
KALEFAKZIA	HIDROMASAJEA
GRES ETA AZULEJOAK	KOMUNEKO ALTZARIAK...
PINTURAK	HERREMINTAK
ATE METALIKOAK	LANERAKO BABESA

HERNANI  
Eraikuntzarako almazena: Ibaiondo poligonoa 30  
Tel. 943 55 06 55  
Iturgintzako almazena: Ibaiondo poligonoa 30  
Tel. 943 55 20 94  
Esposizioa: Ibaiondo poligonoa 30 Tel. 943 33 61 86  
DONOSTIA  
Esposizioa: Balleneros 10 - Tel. 943 45 11 11

**IRIZAR ARDOAK**

La Rioja Alta, S.A.

CASTILLO DE MONJARDIN

Barón de Oña

TORELLÓ  
CAVA

SOLAGÜEN

Telefona: 943 55 10 01 Akarregi, 3c partzela 20120 HERNANI

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Nagusia pasa berritan, bertso mundua geldirik dagoenik ez pentsa. Gaur ere, bere lantokian harrapatu degu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko koordinatzailea: Aritz Zerain

ereñotzuarra. Hernaniko Kronikan lanean jardun ondoren, eman zuen lanpostu berrirako urratsa eta bertsoan ere, urte gutxitan urrats asko eman zalea izan da. Altxa dadila beraz, lehen ofiziorako Aritz Zerain.

## ARITZ ZERAIN BERTSOLARIA

# «Gure eredua kopiatzen obsesionatu gabe, badaukagu beste euskerazko kultur disziplinei laguntzea»

Agin Rezola Laburu

### ZORTZIKO HAUNDIA

**Elkarte barrutik, pasa berri den Gipuzkoako txapelketaren ze balorazio egin dezue?**

Txapelketa ona izan dek orokorrean, baina kezka batzuk utzi dizkigun txapelketa ere badek. Bertsolariak kantuan ari diren bitartean jendea mugitzea, animo builak eta horrelakoak berri xamarrak dituk bertsolaritzan eta txapelketetara hainbesteko jende pila joateak ekarri dik, izaera anitzeko bertsozaleak elkar- tzea. Hain bertsozaleak ez direnak ere etortzen dituk festa haundi bat delako, bertsolaritzarena, euskerarena edo nahi denarena. Festa hori bilakatzea ona dek, baina bere alde txarrak ere badizkik eta horren inguruan gogoeta bat egiteko beharra izan dek. Gehienak alde onak dituk, baina gure eginbeharrak txarretan fijaszea nola izaten den, horri buelta batzuk eman behar zizkioagu.

Bertso mailaz eta, uste diat txapelketa ona izan dela. Beti ere, kezka bahuena punta puntakoak falta zirelako, baina Gipuzkoan bertso maila oso ona dagoela erakutsi dek eta jende berria atera dek. Gipuzkoako bertsolaritzak behintzat, indartsu segitzen dik.

**Orain, hire karguarekin, ez ditek txapelketetan parte hartzen uzten edo herorrek ez dek nahi?**

Batzuk tabladu gainean egoteko beste batzuk bulegoan egon behar diagu eta neri fase horretan tokatu zaidak. Inbidia pixka bat pasa diat, baina bakoitzak jakin behar du non dagoen eta zer tokatzen zaion zer.

**Gaitasun faltagatik denik behintzat ez esan, orain dela 4 urte gaizki atera arren.**

Nik ikusten diat hor kanta- tzeke moduan egon ninteeke-



Aritz Zerain, Villabonan, Bertsozale Elkarteko eraikina atzean duela.

la, baina orain beste fase batean nagok eta burua ez zaukaat bertsoarako.

**Gurasoek maiz galdetzen ditek haurrak ze adinekin hasten diren bertso eskolan. Hi bezain berandu hasi denik gutxi izango dituk.**

Nik, gazte garaitan esan beharko diagu orain, burua baloi formakoa bakarrik nian eta futboleko ibiltzen ninduan ikaragarri gustora. Egia esan, bertsoarako zaletasuna beti ekarri izan diat, baina nik ez nian inoiz nire burua ikusten jende aurrean bertsoan. 24 urterekin kantatuko nian publiko aurrean nere lehenengo bertsoa, Hernaniko tabernetako txapelketan. Giro oso berezian. Eta hortik inguratu ninduan Hernaniko bertso eskolara.

**Hala ere, Euskal Herriko Txapelketa Nagusian kantatua haiz. Igor Muniategi oraindik gogoratuko dek!**

Kar, kar, kar... Bertso eskolan

«Inbidia pixka bat pasa diat, baina bakoitzak jakin behar du non dagoen eta zer tokatzen zaion zer»

«Topo egin degu administrazioaren burokrazi guzti horrekin eta errekurtsio asko ez dizkiagu horri aurre egiteko»

hasi eta 3 urtera, tonto tonto, klasifikatu egin gintuan, bai. Egia esan, oso kontziente izan gabe zer suposatzen zuen. Gerora jakin izan diat ze zaila den. Oroitzapenik onenak ere orduan zauzkat: 2001eko Euskal Herrikoa. Nahiz eta ez klasifikatu, nik uste, neukan mailarako nahikoa egin nuela, baina saioan baino, oroitzapen gehiago zauzkat prestakuntzarekin.

**Bertso eskolan berandu hasi izana nabaritu dek?**

Teknika aldetik, egoera zailetatik nola atera... horrelakoe- tan oinarri bat botatzen diat faltan. Bestalde, horrek freskotasuna ere ematen dik, bertsoa beste era batera ulertzeko.

### ZORTZIKO TXIKIA

**Hi haiz bertsolaritzako Al Capone?**

Kar, kar, kar... Bertsolaritzan ez diat uste hari guztiak kontrolatzen dituen inor dagoenik. Bertsozale Elkarteko koordinatzaile izatea tokatu zaidak, baina kriston jende pila ari dek elkartean eragiten. Soldatapeko lan dexente dago, baina borondatezkoa ere kriston pila zegok. Peoi pila bat zegok eta ni tartean, beste bat gehiago.

**Bertsolaritza munduko zenbakiak hire eskutik pasatzen badituk eta Gipuzkoakoak lxiarrenetatik...**

### PUNTU ERANTZUNA

**Jexux Mari Irazuk Aritz Zeraini:**

**Nausi jauna ze berri bertso elkartean?**

nausirik ba al zegok zuen artean? guztiak gaituk peoi Kulturari, Artean ta inor ez diagu uzten aparte- an guztiak batean eragin katean lan borondatean deus ez da kaltean hizkuntza kinkan dagon herri batean

**Aritz Zerainek Maialen Lujanbiori:**

**Egunero izan behar al da txapelduna?**

**Etzeko kontuak nork eramaten dizkik?**

Tokatu egin zaiguk bioi postu "nabarmeneta" ego- tea eta egia esan, ez zekiat agendak nola uztartu behar- ko ditugun. Kar, kar, kar...

**Auzo udala zertan da?**

Ilusioz eta arrankatzen. 5 urte sortzen pasa genizkian, uda- berrian sortu huen, baina egia dek topo egin degula administrazioaren burokrazi guzti horrekin eta errekurtsio asko ez dizkiagu horri aurre egiteko. Orduan, ilusioarekin, ahal den tokitik eta ahal den bezela denbora atereaz, aurrera ziak. Langile bat ekarri zigutek orain, baina tekni- karirik ez diagu eta gauzak aurrera ateratzen denbora asko pasatzen diagu.

**Aranzadik noiz onartuko du bertsoa Ereñotzun sortu zela?**

Ni joaten naizen toki guztie- tan aldarrikatzen saiatzen nauk hori! Ez zekiat han

sortu zen, baina urruti gabe, han ibiliko huen. Jende aurreko bertsolari asko sortu ez baldin bada ere, ikusten dek edozein ixkinatan, edozein base-rriko aitona amonak bertsoan egiten zutela eta hala kontatzen dek. Hori guztia berreskuratzen edo dokumentatzen lanen bat egin beharra bada goela uste diat.

**Eta orduan, "soño" errima bezela erregistratuta geldituko dek?**  
Dudarik gabe! Hori bai dokumentatuta dagoela! kar, kar, kar...

#### HAMARREKO TXIKIA

**Labur esatea zaila dek, baina ez dakien bati, nola esango hioke Bertsozale Elkarteak zer egiten duen? Txapelketa nagusiak antolatzeaz gain.**

Bertsolaritza zaindu, sustatu eta etorkizuna bermatzea dek Elkartearen ardura eta bertsolaritzaren bidez, kulturgingintzan, euskalgintzan eta herri-gintzan eragitea, nolabait esateko. Elkartea 3 sail nagusitan zegoen banatuta: transmisioa (hezkontza arautuan 22.000 ikasle daude), sustapena (hedabideak, txapelketak...) eta ikerkuntza.

Sortu zen garaian, orain dela 25 urte, Bertsolari Elkarte bezela sortu omen huen, baina berehalaxe pasa huen Bertsozale Elkarte izatera. Bertsolari eta zaleek, denek, bat egin behar ditek Elkartean.

**Zuentzat, txapelketa garrantzitsuena laster zetorrek: Euskal Herrikoa.**

Txapelketa bakoitzak bere funtzioa dik, baina herrialdekoetatik Euskal Herrikora sailkatzen dek eta 2013an izango dek. Hartan, beldurra ematen badu ere, pentsatzen hasita gaudek, montaje handiak direlako txapelketak.

**Txapelketa nagusi bat jokatzeko den aldiro, esaten da bertsolaritza inoiz baino hobeto dagoela eta beste kultura disziplinentzat ispilu izan beharko lukeela. Hala iruditzen zaik?**

Egia dek, bertsolaritzak asmatu duela auto antolatzen eta indartsu zegoen bertsolaritza. Kezka badek euskalgintza,

## PUNTUKA

**Auzo udala:** Ereñotzu bizi berritzeko behar-beharrezko tresna bat.

**Hernanika Kronika:** Hernanin ezinbesteko bihurtu den euskerazko hedabide bat.

**Bertso eskola:** Hernanin bertsoak duen indarra, bertso eskolari esker dek neurri handi batean eta berak mantentzen dik bizirik.

**Hondakinen kudeaketa:** Betez bete asmatu den zer-bait, arazo larri den zer-bait ez hain larri izateko. Kontzientzia falta zaiguk ikaragarri.

«Bertsolari eta zaleek, denek, bat egin behar ditek Elkartean»

«Egia dek, bertsolaritzak asmatu duela auto antolatzen eta indartsu zegoen bertsolaritza»

kulturgingintza eta herrigintzari begira, bertsolaritza hain indartsu egotea eta euskerazko beste disziplina batzuk ez. Orduan, guk bai egin nahiko genukeela gure ekarpena ahal den neurrian, baina kontzientze gaituk oso egoera ezberdina bizi dutela. Gure eredia kopiatzen obsesionatu gabe, badaukagu antolatzen laguntzea. Guztiontzat onura da eta euskara eta euskal kulturgingintzarentzat zer esanik ez.

**Zenbakitan hazten jarraitu behar likek bertsolaritzak edo oinarriak indartzen?**

Hori dek gure eztabaidatuko bat. Aitor Sarriegik ere esan dik elkarrizketaren batean: 9.000 hoietan ez daude 9.000 bertsozale, baina 9.000 daude! Potentzialidade hori badago, baina oinarriaz ez degu ahaztu behar. Etengabeko gogoeta da. ||

## OROITZAPENEN KUTXA

ARITZ ZERAIN:

# «Kontziente izaten hasten nintzenean, bertigoa ere sentitzen nuen»

ARITZ Zerainek ondo gogoratzen ditu bertsoetako lehendabiziko urteak:

«Lehengusu batek deitu zidaken egun batean tabernetako txapelketa bat egin behar zutela eta ea animatuko nintzen galdetuz.

«Osiñalde sariketarik deitu zidaken Iñaki Muruak eta finalera pasa ninduan. Finalean hasi ninduan konturatzen: uf! hau zer da? Artean, gainera, ez nituelako dominatzen ez doinu, ez bertsoaren teknirik. Dena libre egiten nian nik»

Hasiera batean ezetz esaten nian, baina azkenean animatu egin ninduan. Hura ondo atera huen eta geroztik, batak eta besteak, bertso eskolara inguratzeko, etor-



Aritz Zerain tabernetako txapelketan, orain dela hamar bat urte.

tzeko... Pixkanaka pixkanaka hurbildu ninduan eta hortik etorri huen, nahi gabe bezela.

Momentu batzuetan gainera, uste diat, kontziente izaten hasten nintzenean, bertigoa ere sentitzen nuela. Berehalaxe Osiñalde sariketarik deitu zidaken Iñaki Muruak eta finalera pasa ninduan. Finalean hasi ninduan konturatzen: uf! hau zer da? Artean gainera, ez nituelako dominatzen ez doinu, ez bertsoaren teknirik. Dena libre egiten nian nik!». ||

tatik deitu zidaken Iñaki Muruak eta finalera pasa ninduan. Finalean hasi ninduan konturatzen: uf! hau zer da? Artean gainera, ez nituelako dominatzen ez doinu, ez bertsoaren teknirik. Dena libre egiten nian nik!». ||

## BAKARKA HIRU BERTSO

**Gaia:** Auzotar batek Ereñotzuri.  
**Doinua:** Hamarreko haundia

Hona hiru bertso auzotar batek jarriak Ereñotzuri auzo bizia izan zarena ahuldu zerala dirudi negar malkoen ordez izerdi tantak nahi ditut isuri guztia jaso dugu zugandik nortasun eta irudi jasotakoa itzuli behar dizugu orain guk zuri

Txirrita zena bertan jaioa bertsoa dugu ondare erreka, mendi, ola ta zentral animala ta landare "landa eremu" deitutakoan lantegiak parez-pare oreka zaintzen, asma dezagun aurrerantzean bazpare aurrera egin behar bai dugu atzeaz ahaztu gabe

Auzo guztian ilusiotik sortu da Auzo Udala auzotik eta auzoarentzat eginbide naturala biak uzartu, nahi genituzke ekiña eta ahala denona dena, zainduko dugu gurea balitz bezela ta Ereñotzuz, Ereñotzuk ta Hernanika goza dezala

**Amegar**  
otxo tresnak - altzarriak

Zatoz!  
eta aurkitu  
behar duzuna

Txirrita kalea, 13-15  
Tel.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 03

Punta-puntako markak



Hotzgailuak  
Izotzgailuak  
Labeak  
Garbigailuak



**ARALAR**  
TABERNA



GIRO EDERRA  
ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8  
943 33 15 06



**GABONETAKO**  
**ZOZKETA**  
**2011**



Hernanika  
kronika

**4. SASKIAREN IRABAZLEA FALTA DA!**

(IRIGOIEN ZAPATADENDAN SALDUA)

EPEA: URTARRILAK 12

**URTARRILEKO KULTUR EKINTZEN AGENDA**

# Bertsotan hasi eta txotxean bukatuko dugu urtarrila

Bertsolatako jaialdi nagusia izango da urtarrilaren 7an eta txotx denboraldia urtarrilaren 22an irekiko da. Eta horien aurretik, Gabonak agurtzeko, erregeen kabalgata izango da datorren ostegunean.

BERTSOLARITZAK, protagonismo berezia izan du bukatzeaz den hilabete honetan, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa tarteko, eta datorren hilabetean ere izango du bere lekua. Izan ere, Bertsolatako jaialdi nagusia izango da urtarrilaren 7an. Saioa Biterin izango da 22:30etatik aurrera.

Hilabetea bukatzerako, beste protagonista bat ere izango da urtarrilean: sagardoa. Txotx irekiera eguna urtarrilaren 22an izango da.

Dena dela, ezin ahaztu oraindik Gabonak direla eta Hernaniko hainbat eta hainbat ume itxaroten ari direla errege magoen opariak. Erregeak datorren ostegunean iritsiko dira Hernanira eta errege kabalgata izango da herrian barrena, 18:00etatik aurrera.

Horrez gain, Gabonetako ekintzen barruan, haurrentzako antzerkia izango da astear-tean. *Bolaluma* izeneko antzez-lana eskainiko du Kixka Taldeak, 17:00etan, Biterin.

**Hernani'n Musik, Harkaitz Cano eta Beñat Barandiaranekin**

Urtarrilean, Hernani'n Musik egitasmoaren beste emanaldi batekin gozatzeko aukera izango da. Kasu honetan, Harkaitz Cano idazleak eta Beñat Barandiaran musikariak literatura eta musika uztartuko dituzte. Urtarrilaren 27an izango da Biterin, 20:00etan.

**Oleo eta bitxi erakusketa**

Hilabetero bezala, datorren honetan ere ez dira faltako erakusketak. Hain zuzen, bi era-



Txotx irekiera eguna, urtarrilaren 22an izango da. Urtero bezala, denboraldiko sagardoa probatzeko aukera izango da Plazan.

kusketa izango dira Biterin. Alde batetik, oleoak egongo dira ikusgai urtarrilaren 9tik 23ra eta bestetik, bitxiak, urtarrilaren 26tik otsailaren 9ra.

**Ikastaroak, Literatur Solasaldiak, Kalez Kale Kantari...**

Erakusketen moduan, ohikoak diren ekintzak ere izango dira urtarrilean zehar. Urtarrilaren 17an, esaterako, Literatur Solasaldiak izango dira eta Uxue Alberdiren Aulki-jokoa liburuaz ariko dira. Udal Liburutegian izango da hori, 19:30etan.

Horrez gain, izango dira: sendabelarren eta bisuteria-abalorioen ikastaroak, Kalez Kale Kantari bigarren larunbatean, Bigarren Eskuko Azoka azken larunbatean, ipuin kontaketa... II

## Urtarrileko kultur ekintzen agenda

**Urtarrilak 3**, Antzerkia haurrentzat: *Bolaluma*. Taldea: Kixka Taldea. Biteri Kultur Etxean, 17:00etan.

**Urtarrilak 4**, Gazte Txokoa: Dardo Txapelketa.

**Urtarrilak 5**, Erregeen kabalgata, 18:00etan.

**Urtarrilak 7**, Bertso jaialdia, Biteri Kultur Etxean, 22:30etan.

**Urtarrilak 7**, Gazte Txokoa: Ligatzen ikasi.

**Urtarrilak 9tik 23ra**, Oleo erakusketa, 'Bilili' Afrikako Artea Promozionatzeko Elkarteak antolatuta. Egilea: Papytsho Mafolo Pongo. Biteri Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**Urtarrilak 10**, Bisuteria-abalorioak ikastaroaren hasiera, Biteri Kultur

Etxean 19:00etatik 20:30etara.

**Urtarrilak 12**, Bisuteria-abalorioak ikastaroaren hasiera, Biteri Kultur Etxean 19:00etatik 20:30etara.

**Urtarrilak 14-18**, Sendabelarrak ikastaroan izena emateko epea, Biteri Kultur Etxean. Hizkuntza: euskera.

**Urtarrilak 14**, Kalez Kale Kantari, Plaza Berritik 12:00etan.

**Urtarrilak 14**, Gazte Txokoa: Sukaldaritza tailerra.

**Urtarrilak 17**, Literatur solasaldiak: Aulki-jokoa. Egilea: Uxue Alberdi. Dinamizatzailea: Ane Mayo (euskeraz). Udal Liburutegian, 19:30etan.

**Urtarrilak 22**, Txotx Eguna.

**Urtarrilak 22**, Gazte Txokoa: Zinemara irteera.

**Urtarrilak 25**, Gazte Txokoa: Kutxak forratzea.

**Urtarrilak 26tik otsailak 9ra**, Bitxi erakusketa. Egilea: Giovanna Bittante. Biteri Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara.

**Urtarrilak 26**, Gazte Txokoa: Kutxak forratzea.

**Urtarrilak 27**, Hernani'n Musik, Harkaitz Cano eta Beñat Barandiaranekin. Biteri Kultur Etxean, 20:00etan.

**Urtarrilak 28**, 2. Eskuko Azoka, Atsegindegian 10:30etatik 13:30etara.

**Urtarrilak 31**, Ipuin kontaketa, Lur Kortarekin. Udal Liburutegian, 17:30etan (3-4 urte) eta 18:00etan (5-7 urte).

## ERREMONTA - BURUZ BURUKO ORONA MASTERRA

# Urrutia I eta Urriza neurtuko dira gaur, finalerako pasea lortzeko asmoz

Norgehiagoka 17:00etatik aurrera izango da. Gaur irabazten duenak, Koteto Ezkurra egungo txapelkunaren aurka jokatu du.

MIGUEL Mari Urrutia eta Javier Urriza aurrez aurre izango dira gaur, Galarretan. Buruz Buruko Orona Masterreko finalerdia jokatu duite eta biak finalerako pasea lortzea izango duite helburu. Norgehiagoka 17:00etatik aurrera izango da eta ETB1n ikusteko aukera ere izango da, zuzenean. Gaur irabazten duenak, Koteto Ezkurra egungo txapelkunaren aurka jokatu beharko du finala.

### Partidu, parekatua

Urriza eta Urrutia finalerdia iritsi dira, Zeberio eta San Migueli erraz irabazi ostean, eta partidu parekatua espero da gaur. Urrutiak sakez min egiten badaki eta Urriza eusten saiatuko da. ||



Urrutia I eta Urriza gustora geratu ziren aukeratutako materialarekin.

Argazkia: Maialen Andres



**Arrakastatsua, parte hartze eta ikusle kopuru aldetik.** Hernaniko pelota eskolako benjaminak bildu eta txapelketa azkarra jokatu zuten asteazkenean, lehenengo aldiz. Guztira, 28 pelotarik hartu zuten parte. 10 orduko iraupena izan zuen txapelketak eta 69 partidu jokatu zituzten. Lehenengo lau sailkatuak honakoak izan ziren: Xabat Etxandi, Unax Pagola, Jagoba Garmendia eta Xabier Apaolaza. Pelotaz gozatzerako frontoira hurbildu zirenak ere asko eta asko izan ziren. Antolatzaileen esanetan, arrakastatsua izan da lehenengo topaketa hori, bai parte hartzaile aldetik eta baita ikusle kopuru aldetik ere. ||

## ◆ TXANTXANGORRI - Plater Tiroa

### San Silvestre tiraldia, gaur

Abenduak 31, San Silvestre eguna da gaur eta urtero bezala, Plater Tiro Txapelketa izango da Santa Barbaran, Txantxangorri elkarteak antolatuta. Tiraldia, foso unibertsaleko modalitatean izango da eta orange koloreko 25 plater puskatu beharko dira. Izen ematea bertan izango da, 10:00etatik 11:30etara. Prezioa: 15 euro, bazkideek. Sariak, sailkapenaren arabera aukeratu dira. Tiraldia bukatzean, luntxa izango da parte hartzaile guztientzat. ||

### Txakur eta guztiko txapelketan izen ematea, ostegunera arte izango da zabalik

Urtarrilaren 8an eta 15ean, txakur eta guztiko XXXIII Ehiza Txapelketa izango da eta izena, urtarrilaren 5eko 20:00ak baino lehen eman behar da, Txantxangorri elkartearen. Honakoa da ordutegia: goizetan, 10:30etatik 12:30etara, larunbat, igande eta jaiegunetan izan ezik; eta arratsaldetan, 19:30etatik 20:30etara, astelehen, asteazken eta ostiraletan, jaiegunetan izan ezik. Izen ematea: 40 euro. ||

## ◆ SASKIBALDIA - Gabonetako Txapelketa

### Julen Murillo onena, jaurtiketa libreetan eta Iñigo Madina, hirukoitzetan

Gabonetako Txapelketa jokatu zen asteazkenean eta honakoak izan ziren emaitzak: Hernani-Buruntza 1go urteko junior taldea 94-54 Hernani-Sansonari 2garren urteko kadete taldea; eta Hernani-Azeriak 2garren urteko junior taldea 42-60 Hernani-Teklan Laser senior taldea. Bestalde, jaurtiketa libreko eta jaurtiketa hirukoitzeko txapelketak jokatu ziren. Jaurtiketa libreetan, Julen Murillok irabazi zuen Azeriak taldekoak, eta hirukoitzetan, Iñigo Madinak, Buruntza taldekoak. ||

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errepetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### † ANTONIO GOIKOETXEA BEOBIDE

JAUNA  
"Mekanikoa"  
Atzo hil zen, 94 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Emaztea: Mari Carmen Urdangarin; seme-alabak: Carmen eta Juan Jose Etxeberria, Pablo eta Begoña Parabela, Paki eta Josep Armengol, Marian eta Mikel Plazaola; bilobak: Maria, Itziar eta Mikel, Monika eta Marina, Maialen, Paul eta Olatz; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **GAUR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parroki elizan egingo den hiletara, gorputza bertan dela. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2011ko abenduaren 31n

Helbidea: Elizatxo 60-2.ezk  
OHARRA: Gorputza Errekaldeko VASCONGADA EHORKETA TANATORIOAN dago



### † ANTONIO GOIKOETXEA BEOBIDE

- Goian Bego -

Gogoan zaitugu

**ALTZUETAKO ILOBAK**

Hernanin, 2011ko abenduaren 31n



**FUNERARIA**  
**ORBEGOZO**  
**ERRAUSKETAK**

24 orduko tfnoa.

**943 33 10 20**

[www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)



- Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

**Zentrala HERNANI**  
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 333288 ● **DYA**: 943 464622 ● **Autobusak**: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● **Anbulatorioa**: 943 006666 ● **Jokalari anonimoak**: 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak**: 943 331103  
 ✚ **FARMAZIAK** ● **GAUR**: Egunez: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauetz**: **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077  
 ✚ **FARMAZIAK** ● **BIHAR**: Egunez: **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauetz**: **Etxebeste** Elkano 9 - 943 552087

**EGURALDIA** ● **GAUR** Lainotuta egongo da, baina arratsaldean haizeak hego-mendebaldera egin eta lainoak poliki-poliki desegino dira. Min.8° / Max.14°  
 ● **BIHAR** Goizean zehar lainoak desegin eta urdinguneak izango dira. Arratsaldean eta gauean lainoak ugartuko dira, berriz. Hego-mendebaldeko haizeak joko du. Min.6° / Max.15° (euskalet)

KRONIKAZIA



## 2012IONAK eta krisialdi on!!

*Hai Zubimendi!!*

### ARGAZKILARITZA

# Nagore Legarretaren 'Edipotoa' liburua, salgai

Argazkilari hernaniarrak, lata edo poteekin egindako kamarak erabili ditu liburuko argazki bildumak egiteko. Bilduma bakoitzean idazle batek idatzi du.

NAGORE Legarreta argazkilari hernaniarrak *Edipotoa* izeneko liburua argitaratu berri du Banizunizuke argitaletxearekin. Liburuaren berezitasuna da, argazkiak, lata edo poteekin egindako argazki kamaren bidez atera direla, hau da, norberak etxean egindako argazki kamarekin. Teknika hori antzinako teknika da eta argazkiei testura eta itxura berezia ematen die. Liburuan bost argazki bilduma daude eta bakoitzean idazle batek kolaboratu du.



Nagore Legarreta.

#### Azokak, monumentuak, hondartzak, itsasertzak eta lau zulotako kamara

Lehenengo bilduman, azokei buruzko argazkiak ikusi daitezke, generoa eta postuak geldituz azaltzen dira eta jendea mugimenduan. Bilduma horretan, Gorka Setienek idatzi du.

Bigarren seriean, Italiako (Erroma, Florentzia...) hainbat monumentu azaltzen

dira. Testuak Haizea Arregik idatzi ditu.

Hondartzako egoera ezberdinen argazkiak bildu ditu argazkilari hernaniarrak, hirugarren seriean. Serie horri, Lainon idazleak jarri dizkio hitzak.

Itsasertzak ere badu lekua laugarren seriean. Bertan,

arrantzaleak eta itsasoa eta luraren arteko mugan topatu daitezkeen beste hainbat egoera azaltzen dira. Juanbau Erauskinek idatzi ditu testuak.

Azken seriean, lau zulotako kamara (360°) estenopeikarekin ateratuko argazkiak ikusi daitezke. Kamara horren berezitasuna da, lau plano ezberdinetan (iparra, hegoa, ekialdea, mendebaldea) dauden puntuak biltzen dituela argazki berean, erreallitate hankaz gora jarrita. Serie horretarako testuak, Mikel Peruarenak idatzi ditu.

#### 12 euroan, salgai

Liburua 12 euroan dago salgai: Hernanin, Itsaski eta Kitto tabernetan; Donostian, Warung (Sagues), Garraxi (Egia), Beti Boga (Egia) eta IVASFOT argazki eskolan (Alde Zaharra); eta interneten, <http://www.banizunizuke.com/ordainketa.html>. ||

### HAURRENTZAKO ANTZERKIA

#### Makiltxo magikoa gaizkile baten eskuetan dago...



Haurrentzako antzerki emaldia antolatuta du Udaleko Hezkuntza Sailak, asteartean.

Gabonetako ekintzen barruan izango da, 3 eta 8 urte arteko haurrentzat. *Bolaluma* izeneko antzezlan eskainiko du Kixka taldeak, 17:00etatik aurrera, Biterin. Istorioari dagokionez, honakoa kontatzen du antzezlanak: makiltxo magikoa gaizkile baten eskuetan dago. Berreskuratu egin behar da ahalik eta azkarren, edo mundua okertzen hasiko da... Sarrera dohainik da, egun berean banatuko dira 16:00etatik aurrera. Gehienez, 171 lagunentzako izango da lekua.

Kixka taldea 1990ean sortu zen, Eibarren. Bere helburu nagusia da: antzerkiaren giroa eta mundua hurrengana hurbiltzea eta horiek, sortzen diren egoeren aurrean, parte hartzea. Txotxongi-oen bizitasuna, dantza, mimoa, mugimendua... darabilte. ||

### IRAGARKI MERKEAK

- Terrenoa utziko genuke Florida auzoan**, txukun mantentzearen truke. Txabolak baditu eta ura ere bai. Egokia, ardiak sartu edo baratza egiteko. Deitu: 943 308 338 - 697 885 035
- Alokairuko pisu bila nabil.** Mutil bat naiz, arduratsua, lana eta abalarekin, 500-600 € ordaintzeko prest. Deitu: 618 027 897
- Pixua salgai**, Mañe y Flaquer kalean, 5. solairua kalefakzioarekin. 250.000 €. Deitu: 679 501 384
- Eskarmetudun emakumea** behar da tabernan lan egiteko, asteburuetan. Deitu: 669 160 727
- Enara Goikoetxea.** Sendabide energetikoa, Kristaloterapia, Ayurveda Masajea, Obsidiana harrien masajea, Bach loreak, Metamorfikoa, Reikia, Argi Kanalak Tarot terapeutikoa. Tel.: 649700762.
- ETXEKO KONPONKETAK egiten dira;** iturgintza, elektrizitate, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
- Yolanda estetika zentrua.** Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzalea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
- Alicia C.C.:** Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
- Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI



## GURE RENOVE PLAN BEREZIAREKIN JARRAITZEN DUGU

**%20**

ko deskontua gama zuriko etxe tresnetan

Garbigailuak, hozkailuak, labeak, sukaldeak...

